



Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia sortzeko lege-aurreproiektuari dagokionez, jakinarazten dizuet aurreproiektuak, egitura organiko eta funtzionaleko araua denez, ez duela behar Generoaren araberako eraginaren aurretiko ebaluazio txostenik. Izan ere, kasu horretan aplikatzekoa da Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideek ezarritako salbuespena, lehenengo jarraibidearen 2.1.b) apartukoa, jarraibide horiek onartu ziren Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Akordioaren bidez.

Lege-aurreproiektuaren xedea da Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia- Agencia Vasca de Ciberseguridad sortzea Eusko Jaurlaritzaren zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa; nortasun juridiko propio edukita eta bere jarduera ordenamendu juridiko pribatura egokituta. Erakunde horrek, bere helburuak lortzeko jardute-gaitasun osoa izango du, bai eta autonomia organiko eta funtzionala ere eta atxikita egongo da segurtasunaren arloan eskumena duen sailari.

Izan ere, aztertzen ari garena bezalako kasuetan, lehen jarraibideko 2.1 b), c) edo d) idatz-zatietan aurreikusitako salbuespen-arrazoietakoa bat aplikatzekoa denean, araua sustatu duen organoak, inguruabar hori espedientean jasota, izapideetan aurrera egin dezake Emakunderi txostenik eskatu gabe.

Hala ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak xedatzen duenez, euskal botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko erabakiak hartzeko esparru guztietan. Alde horretatik, positibotzat jotzen dugu arau-proiektuak neurri hori aintzat hartzea, emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua kontuan hartzen baita Lege aurreproiektuaren 7. artikulua, Euskadiko Zibersegurtasun Agentziaren Aholku Kontseiluaren osarari buruzkoan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 4<sup>a</sup>

Con relación al anteproyecto de ley de creación de la Agencia Vasca de Ciberseguridad, por medio de la presente pongo en su conocimiento que dado el carácter esencialmente organizativo de la norma, no le es exigible la realización del Informe de Impacto en Función del Género, ya que le es aplicable la excepción prevista en el punto del apartado 2.1.b) de la primera de las directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres, aprobadas por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 21 de agosto de 2012.

En efecto, el anteproyecto de ley tiene por objeto la creación de la Agencia Vasca de Ciberseguridad-Euskadiko Zibersegurtasun Agentzia como ente público de derecho privado del Gobierno Vasco, con personalidad jurídica propia, que ajusta su actividad al ordenamiento jurídico privado, con plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines y con autonomía orgánica y funcional, adscrita al departamento competente en materia de seguridad.

De hecho, en los casos como el que nos ocupa, en el que es de aplicación alguna de las causas de exclusión previstas en los apartados 2.1. b), c) o d) de la directriz primera, el órgano promotor de la norma puede, dejando constancia de tal circunstancia en el expediente, continuar adelante con la tramitación, sin necesidad de solicitar informe a Emakunde.

No obstante, tal y como dispone la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, los poderes públicos vascos han de adoptar las medidas oportunas para lograr una presencia equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuadas en los distintos ámbitos de toma de decisión. En este sentido, nos parece positivo que el proyecto de norma tome en consideración dicha medida al considerar la representación equilibrada entre mujeres y hombres en el art. 7 del anteproyecto de ley referido a la composición del Consejo Consultivo de la Agencia Vasca de Ciberseguridad.

Vitoria-Gasteiz, a 4 de octubre de 2022